Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikuluak aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena,
Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legeak, ekainaren 18koak, ezarri du zein oinarritatik abiatuta garatu behar diren Nafarroako administrazio publikoen politikak hondakinen prebentzio eta kudeaketaren alorrean.

Aipatu foru legearen zioen azalpenean adierazten den bezala, Nafarroako Hondakinen Funtsa eratu zen hondakinek gizakiaren osasunean eta ingurumenean duten eragin kaltegarria arintzeko asmoz, xede harturik ingurumen-emaitza globalik onena ahalbidetzea: prebentzioa, berrerabilpenerako prestakuntza eta hondakinen birziklapena. Horregatik, Hondakinen eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezartzen da beharrezkoa dela erregelamendu bat onestea, Hondakinen Funtsa kudeatzeko, antolatzeko eta banatzeko irizpideak finkatuko dituena. Erregelamenduzko garapen horrek errespetatu eta aintzat hartu beharko ditu foru legean jasotzen diren helburuak eta filosofia.

Horrela, praktikara eramaten dira 2017-2027 eperako Nafarroako Hondakinen Planean ezarritako neurriak, hondakin-kudeaketaren gobernantzari eta, bereziki, haren fiskalitateari buruzkoak, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 Zuzentaraukoak ere (zeinak aldatzen baitu hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraua), hondakin-kudeaketako hierarkia hobetzeko tresna ekonomikoak lantzen dituztenak.

Bestalde, Hondakinen eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 43. artikuluak xedatzen du Hondakinen Funtsa ingurumenaren arloko eskumenak dituen departamentuak banatuko duela urtero, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoari kontsulta egin ondoren, hondakin-hierarkiako goiko mailadiak lehenetsiz, helburuak beterik eta ingurumen premiak kontuan hartuta, hondakin-fluxu bakoitzak hartarako egiten duen ekarpen ekonomikoaren proportzioan eta artikulu horretan espresuki aipatzen diren arloen arabera.

Nahiz eta Parlamentuko eztabaidan argi utzi zen –aurkeztu eta onetsiriko zuzenketak horren erakusgarri dira– zein zen legegilearen borondatea, adieraziz ezen funts-banaketaren helburuak “bermatu” beharko zuela “banaketa-irizpideetan lehenetsi egiten direla helburuen betetzean emaitzarik onenak lortzen dituzten eragileak eta entitateak”, desadostasunak eta arazoak sortu dira 14/2018 Foru Legearen 43. artikulua aplikatzeko garaian.

Desadostasun horien mamia da ea zehaztu behar den edo ez zein den foru legeak funtsa sortzearekin zeukan helburua, funtsa nola banatu behar zaien toki entitateei eta zein diren banaketa horretan aintzat hartu beharreko irizpideak.

Alde horretatik, ohartarazi beharra dago foru legea onetsi zuen gehiengoaren borondateak irizpide argi bat txertatu zuela hartan: funtsaren banaketa egin zedila hondakin-fluxu bakoitzak bertara eginiko ekarpen ekonomikoaren proportzioan, baina xedetzat harturik funtsaren banaketan lehentasuna ematea ongi jokatzen zuten toki entitateei (“helburuen betetzean emaitzarik onenak lortzen dituzten...”). Ez zen haien arteko norgehiagoka bat bilatzen lehentasunezko edo urgentziarik handieneko ekintzak lehenesteko, gainera. Bilatzen zena zen funtsak balio izan zezala “saritzeko” nor eta gaikako bilketetan –eta, batez ere, frakzio organikoarenean– edo haien balorizazio globalean adierazlerik onenak dituzten toki entitateak.

Azken finean, ez dauka zentzurik hondakin-arloan eskumenak dauzkaten Nafarroako toki entitate guztiak berdintasunez tratatzeak, foru legearen espiritua argi dagoelarik: Hondakinen Planaren helburuekin egiazki konprometituta daudenak lehenetsi eta saritzea; ez norgehiagokaren araberako banaketa baten bidez, aintzat harturik funtsaren xedea ez dela haiei guztiei aukera berak ematea banaketan, baizik eta positiboki diskriminaturik –”etekinak aplikatzea”, esan zen Parlamentuko eztabaidan– beren zereginak ongi betetzen dituzten horiek, edo gutxienez ere progresio batean dauden horiek.

Zalantzak sortu dira Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 2.2 artikuluak Hondakinen Funtsaren banaketari dagokionez izan beharreko aplikazioari buruz eta foru lege horretako 17. artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-sistema nahitaez aplikatu behar izateari buruz. Izan ere, 17. artikulu horrek dio zuzenean eman ahalko direla honako dirulaguntza hauek: "b) Lege mailako arauren batek aginduta edo zenbatekoa zehaztuta administrazioak ematen dituenak. Kasuan kasuko prozedura aplikagarria erabiliko da dirulaguntza horiek emateko, bakoitzaren araudiari jarraituz". Horixe da lege proposamen honekin erdietsi nahi diren helburuetako bat: legezko gaikuntza bat egon dadila, toki entitateek Hondakinen Funtsaren banaketatik dagokiena zuzenean jaso dezaten, haien arteko norgehiagokarako aukerarik sortu gabe, ezen horrek aurka eginen lioke hondakin-isurketaren gaineko kanon edo zergaren filosofiari berari.

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen aldaketaren testua.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 43. artikulua. Hona testu berria:

"43. artikulua. Hondakinen Funtsaren xedea eta banaketa.

1. "Hondakinen Funtsa" izeneko aurrekontu-partida banatzeko modua ingurumenaren arloko eskumenak dituen departamentuak erabakiko du urtero, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoari kontsulta egin ondoren, irizpide gisa hondakin-hierarkiako goiko mailadiak lehenetsiz, helburuak beterik eta ingurumen-urgentzia kontuan hartuta, hondakin-fluxu bakoitzak hartara egiten duen ekarpen ekonomikoaren proportzioan eta honako arlo hauen arabera:

a) Hondakin-prebentzioko ekintzak sustatzea.

b) Hondakin-kudeaketaren arloko ikerketa eta garapena, ekodiseinua barne.

c) Sentsibilizazioa, komunikazioa, lagun egitea, heziketa eta prestakuntza.

d) Berrerabilerarako prestaketara bideratutako urratsak.

e) Ekonomia zirkularra sustatzeko eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko jarduketak, hondakinei dagokienez.

f) Gaikako bilketa-sistemak hobetzea.

g) Birziklatze eta balorizazio materialerako sistemak optimizatzea eta hobetzea.

h) Hondakinen arloko boluntario lanak.

i) Hondakinen ondorioz andeatutako eremuak leheneratzea.

j) Hondakin-kudeaketako instalazioen trazabilitate, kontrol eta estandarizazio sistemak hobetzea.

k) Sorreragatiko ordainketa ezartzea.

2. Hondakinen Funtsaren urteroko banaketa Hondakinen eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 43. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz eginen da, halako moduz non:

a) Hondakinak erraustearen eta hondakindegietan ezabatzearen gaineko zergaren bidez heldutako kantitateak hondakin-fluxu bakoitzak sortutakora bideratuko baitira proportzionalki.

b) Hondakinak erraustearen eta hondakindegietan ezabatzearen gaineko zergaren bitartezkoak ez diren gainerako kantitateak ingurumen-urgentziako eta izaera orokorreko jarduketetara bideratuko baitira.

3. Etxeko hondakinen fluxutik eratorritako kantitatea zuzenean banatuko da Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateen artean, baldin eta haiek etxeko hondakinak jaso, garraiatu eta kudeatzearen eskumena esleituta izan eta hondakinak Nafarroako tratamendu-instalazio bati entregatzen badizkiote. Eta eskumen hori zenbait toki entitateren elkarte bati eskuordetuta egonez gero, elkarte hori izanen da funtsen balizko onuradun.

Toki entitateen arteko banaketa eginen da Hondakinen Planaren helburuen lorpenean giltzarri diren bi adierazgarri hauek kontuan hartzen dituzten irizpide objektiboak erabiliz:

a) Gainerako gaikako bilketei eta errefusaren beherakadari alboz eragiten dien jasotako gai organiko garbiaren kantitatea. Toki entitateek ez dute inolako kantitaterik jasoko honako bi baldintza hauek, bata zein bestea, bete ezean:

– frakzio organikoaren gaikako bilketa ezarrita edukitzea norbere eremuko biztanleriaren % 50 hartzen duen lurraldean, gutxienez ere, eta

– gaikako bilketa horretan hondakin desegokien portzentajeak, pisuan, ez gainditzea % 16, funtsaren banaketaren lehen urtean; % 13, bigarren eta hirugarren urteetan; % 11, laugarrenetik seigarrenera bitarteko urteetan; eta % 10, zazpigarrenetik aurrera.

b) Balorizazio-emaitza globalak. Parametro honi dagokion funts-zatia jaso ahal izateko, toki entitate onuradunak ezin dira desbideratuta egon, beherantz, Hondakinen Planean ezarritako helburuei dagokionez, departamentu eskudunak urte bakoitzerako zehazten dituen portzentaje-puntuetan; dena den, 2027. urtetik aurrera, helburuarekiko desbideratzea ezin izanen da handiagoa izan 10 portzentaje-puntu baino.

Funtsa banatzean aintzat hartuko dira, halaber, banaketaren ekitaldiaren aurrekoan toki entitateek hondakin-sorrera prebenitzeko asmoz aurrera eramandako prebentzio-ekintzak”.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.